

# MUTRIKU

## EUSKAL ITSASOAREN TALAIA
## ATALAYA AL MAR VASCO

EUSKAL KOSTALDEA
COSTA VASCA

Euskal Kostaldeko **UNESCO**ren munduko **GEOPARKEA**
**GEOPARQUE** mundial **UNESCO** de la Costa Vasca

# MUTRIKU, EUSKAL KOSTALDEKO BIHOTZEAN

Mutriku euskal kostaldearen erdi-erdian dago, Donostia, Bilbo eta Gasteiztik ordu bat baino gutxiagora. Kokapen ezin hobea, Euskadi ezagutzeko!

**Euskal Kostaldeko UNESCOren munduko Geoparkean kokatua,** Mutriku arrantzale tradizioko herria da eta historia eta arkitektura ondare harrigarria du. Hori dela eta, Mutriku Euskadiko 10 herri politenen zerrendetan agertu ohi da askotan!

# MUTRIKU, EN EL CORAZÓN DE LA COSTA VASCA

Mutriku está en el centro de la costa vasca, a menos de una hora de Donostia-San Sebastián, Bilbao y Vitoria-Gasteiz. ¡Inmejorable ubicación para tus planes de conocer Euskadi!

**Situada en el Geoparque mundial UNESCO de la Costa Vasca,** Mutriku es una localidad de tradición pesquera con un legado histórico y arquitectónico sorprendente que aparece con frecuencia en las listas de los 10 pueblos más bonitos de Euskadi.






**Zeinek argitaratua / Editado por:**
Debegesa
**Diseinua / Diseño:**
Ainara Burgaña Aranburu -
KLIKART estudioa (www.klikart.es)
**Argazkiak / Fotografías:**
Inhar Mutiozabal, Javier Carballo,
Alberto Gorritiberea, Oscar Collazo,
Marta Amonarriz, Hotel Arbe ,
Camping Aitzeta, Haitzalde, Bar Piper,
Buceo Euskadi, Yeguada Olmedo
Uranga, Pablo Bernabé
**1. EDIZIOA (EUSK. / GAZT.): 2017**
**1ª EDICIÓN (EUSK. / CAST.): 2017**
**Eskerrak / Agradecimientos:**
Enrique Areilza, Mutrikuko kondea /
Conde de Mutriku

# AURKIBIDEA / ÍNDICE

Euskal Kostaldeko Geoparkea / Geoparque de la Costa Vasca 04-07

Zortzi mende itsasoari begira / Ocho siglos mirando al mar 08-15

Itsasoa eta mendia / Mar y montaña 16-19

100% basque 20-21

Gastronomia eta alojamendua / Gastronomía y alojamiento 22-23

Natur ingurunean jarduerak / Actividades en la naturaleza 24-27

Bisita gidatuak / Visitas guiadas 28-31



# EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA
## MUNDUKO UNESCO GEOPARKEA

Mutriku, Deba eta Zumaiarekin batera, Euskal Kostaldeko UNESCO Geoparkearen parte da 2010. urtetik. Geologia da lurralde honetako protagonista nagusiena, eta bertan lurraren 60 miloi urteren historia deskubritu dezakegu. Flysch izenarekin ezagutzen diren itsaslabarretan edota barnekaldeko paisaia karstikoetan zehar ibilbide desberdinak eta itsasontziz bisita gidatuak egin ahal izango dituzu.

*(Informazio gehiago:* ***www.geoparkea.eus****)*



# GEOPARQUE DE LA COSTA VASCA
## GEOPARQUE MUNDIAL DE LA UNESCO

Mutriku, junto a Deba y Zumaia, forma parte desde el año 2010 del Geoparque UNESCO de la Costa Vasca. En este territorio donde la geología es la verdadera protagonista, podemos descubrir más de 60 millones de años de la historia de la tierra. Ya sea en los acantilados de la costa conocidos como Flysch ya sea en los paisajes kárstikos de su interior, podrás caminar por sus rutas o realizar excursiones en barco.

*(Más información: **www.geoparkea.eus**)*



# MUTRIKUKO FLYSCH-A, GEOPARKEKO ZAHARRENA ETA BASATIENA

Zer da **flysch**-a? Itsasoak eragindako higaduraren ondorioz milioika urteko historia geologikoa ezkutatzen duten harri geruzak agerian gelditu dira kostalde honetan eta geruza hauek Flysch izenez ezagutzen dira. **Mutrikuko flysch beltza** Euskadiko eta Europako paleontologiarentzako erreferentziazko leku bat da, bertan aurkitu diren fosil erraldoiengatik.

# EL FLYSCH DE MUTRIKU, EL MÁS ANTIGUO Y SALVAJE DEL GEOPARQUE

¿Qué es el **Flysch**? La acción continua del mar ha dejado al descubierto millones de años de historia geológica escritos en sucesivos estratos rocosos de esta costa. Este fenómeno es conocido como Flysch. El **Flysch Negro de Mutriku** es un lugar de referencia para la paleontología de Euskadi y de Europa, debido al hallazgo de fósiles gigantes en sus estratos.



# NAUTILUS

## MUTRIKUKO IKASGUNE GEOLOGIKOA

**Mutrikuko Flysch Beltzean** orain dela 110 milioi urte itsas hondo honetan bizi izan ziren animalien fosil erraldoiak aurkitu dira, Jesus Maria Narvaez eta Esperanza Azkarragaren lan neketsuari esker.

**Nautilus Mutrikuko Ikasgune Geologikoan**, fosil bilduma aparta hau gorde, erakutsi eta azaltzen da, eta mundua dinosauroek menperatzen zuten garaira gerturatzen gaitu.

Kontaktua: 943 60 32 59 / nautilus@mutriku.net

# NAUTILUS

## CENTRO DE INTERPRETACIÓN GEOLÓGICA DE MUTRIKU

**En el Flysch negro de Mutriku** se han hallado fósiles de animales marinos que habitaban esta zona hace 110 millones de años, gracias a la ardua labor de Jesus Maria Narvaez y Esperanza Azkarraga.

**El Nautilus, Centro de Intepretación Geológica de Mutriku**, guarda, muestra y explica esta impresionante colección de fósiles, acercándonos a un tiempo en el que tierra estaba dominada por los dinosaurios.
Contacto: 943 60 32 59 / nautilus@mutriku.net






***Nautilus eta Flyscheko Fosilak.** Nautilus Ikasgune Geologikora bisita gidatua eta flysch beltzeko itsaslabarrak ezagutzeko itsas-irteera. Urte osoan zehar. Erreserbak on-line: **www.geoparkea.eus***

***Nautilus y los Fósiles del Flysch.** Visita guiada al Nautilus, Centro de Interpretación Geológica seguida de una salida en barco para conocer los acantilados del Flysch negro. Disponible todo el año. Reserva on-line: **www.geoparkea.eus***

# **ZORTZI MENDE ITSASOARI BEGIRA,**
# GEOPARKEKO ITSAS ONDAREAREN ALTXORRA

Mutrikuren historia itsasoari loturik egon da beti. XIII. mendean sortutako eta harresitutako hiribildu honek 1209an jaso zuen hiri-gutuna, baina ordurako, balea arrantzan jarduten zen komunitate oparo bat osatzen zuen. Itsas gizon bikain, marinel anonimo eta emakume ausartek mendeetan zehar eraiki duten herri hau euskal kostaldeko zaharrenetarikoa da eta denboran zehar bere izaera eta edertasuna gordetzen jakin du.

*Mutrikuren historiaren sekretuak eta bitxikeriak ezagutu nahi dituzu?*
*Deskargatu app-a eta aurkitu "Mutrikuko enigma".*

GET IT ON Google Play · Download on the App Store



# OCHO SIGLOS MIRANDO AL MAR,
## TESORO DEL PATRIMONIO MARÍTIMO DEL GEOPARQUE

La historia de Mutriku ha estado siempre ligada al mar. Esta villa, fundada y amurallada en el siglo XIII, recibió la carta puebla en 1209, pero antes de esa fecha ya constituía una próspera comunidad dedicada a la caza de la ballena. A lo largo de los siglos, grandes marinos, anónimos pescadores y enérgicas mujeres levantaron este pueblo, uno de los más antiguos de la costa vasca, que ha sabido mantener su identidad y belleza en el tiempo.

GET IT ON Google Play    Download on the App Store

*¿Quieres conocer los secretos y las curiosidades de la historia de Mutriku?*
*Descárgate la app y descubre "El enigma de Mutriku".*



# MONUMENTU MULTZOA

Mutrikuko historia luzearen eta garai oparoen adierazlerik onena Hirigune Historikoa da. 1995 geroztik Monumentu Multzo izendatuta, bere kale txiki, estu eta malkartsuek eta, han-hemenka, ezustean agertzen diren XV, XVI, XVII eta XVIII. mendeetako jauregi eta dorretxe ikusgarriek bereizten dute.

# CONJUNTO MONUMENTAL

El mejor testigo de la larga historia y épocas de prosperidad de Mutriku es su Casco Histórico. Declarado Conjunto Monumental en 1995, destaca por sus estrechas y empinadas callejuelas y una sorprendente muestra de palacios urbanos y casas-torre de los siglos XV, XVI, XVII y XVIII.






















1. ANDRE Mª JASOKUNDEAREN ELIZA IGLESIA DE Ntra. Sra. DE LA ASUNCIÓN (XIX)
2. ZABIEL JAUREGIA PALACIO ZABIEL (XVI-XVII)
3. ARRIETAKUA JAUREGIA PALACIO ARRIETAKUA (XVIII)
4. BERRIATUA DORRETXEA TORRE BERRIATUA (XV)
5. LUARDO DORRETXEA CASA-TORRE LUARDO (XV -XVI)
6. MONTALIVET JAUREGIA PALACIO MONTALIVET (XVIII)
7. LONJA ZAHARRA ANTIGUA LONJA (XVI)

mapa/plano

# ASTIGARRIBIA, MUTRIKUKO SUSTRAIAK

Mutrikuren itsas arima arrantzaleak barnealdean du sorlekua, Astigarribia auzoan, Deba Ibaiaren alboan. Antzina Bizkaiko barnealdera eta Gaztelara zihoan igarobide naturala izanik, auzo honek, bere ibai-portu eta ontziolekin, merkataritza mugimendu oparoa izan zuen. Egun, auzo hau Done Jakue bideko monumentu multzoaren parte da eta baserri ederrak eta Gipuzkoako tenplurik zaharrenetarikoa, XI. mendeko San Andres baseliza, gordetzen ditu.

# ASTIGARRIBIA, LAS RAÍCES DE MUTRIKU

El alma marinera de Mutriku tiene su cuna en tierra firme, en el barrio Astigarribia, a orillas del río Deba. Antigua vía natural de entrada al interior de Bizkaia y hacia Castilla, este barrio tuvo una intensa vida comercial gracias a su puerto fluvial y sus astilleros. El enclave forma parte del Conjunto Monumental del Camino de Santiago y conserva caseríos señoriales y uno de los templos más antiguos de Gipuzkoa, la iglesia de San Andrés (s. XI).





# **MUTRIKUKO PORTUA** BETI ABANTE!

Portua da Mutrikuko herriaren bihotza eta mendeetako izatearen arrazoia. Lehen harrizko moilak XIII. mendean eraiki ziren, “Mutrikuko Kontxa” bezala ezagutzen zen babes portu txiki bat sortzeko. XIX. mende amaieran Evaristo Churruca ingeniariak egungo portuari forma ematen dion handitze-proiektua aurrera eraman zuen. Ramon Iribarren ingeniariak bertan garatu zuen “olatu planoen kalkulua egiteko metodo” garrantzitsua (XX. mendearen erdialdera).

Egungo portuak arrantza jarduera eta kirol portu moderno bat uztartzen ditu, aisialdirako 300 amarralekutik gora eta zerbitzu bikainak eskainiaz. *(Informazio gehiago: **www.ekpsa.eus**).*

Horretaz guztiaz gain, gaur egun Mutrikuko portua energia berriztagarrietan mugarri da, izan ere, 2011 urtetik olatuen energia baliatzen duen Europa osoko lehenengo planta komertziala bertan kokatzen baita. Turismo bulegotik bisita gidatuak eskaintzen dira Mutrikuko Olatu Planta ezagutzeko.



# PUERTO DE MUTRIKU ¡SIEMPRE AVANTE!

El puerto es el corazón de Mutriku y la razón de ser de la villa durante siglos. Los primeros diques de piedra se construyeron en el siglo XIII formando un pequeño puerto refugio conocido como la "concha de Mutriku". A finales del s.XIX, el ingeniero Evaristo Churruca realizó el proyecto de ampliación que da forma al actual puerto, y el ingeniero Ramón Iribarren desarrolló aquí su conocido método de cálculo de los planos de oleaje (mediados del siglo XX).

La flota de barcos de pesca tuvo su máximo esplendor en los años 70 y 80 del pasado siglo. Actualmente, el puerto de Mutriku combina la actividad pesquera con un moderno puerto deportivo, con más de 300 amarres y notables servicios tanto para usuarios habituales como para barcos en tránsito o visita. *(Más información: **www.ekpsa.eus**).*

Además, el puerto de Mutriku es un hito en el desarrollo de las energías renovables ya que desde el 2011 alberga la primera planta comercial de toda Europa que aprovecha la energía de las olas para generar energía eléctrica. Desde la oficina de turismo se organizan visitas guiadas a la Planta de Olas de Mutriku.



# ZORTZI MENDEKO HISTORIA ETA BERE PROTAGONISTAK

## **BALE ARRANTZALEAK** MUTRIKUKO LEHEN MARINELAK (1)

Gutxienez, 1200. urtetik aurrera mutrikuarrak balea arrantzale adituak zirela erakusten diguten dokumentuak daude. Herriko gizon eta emakume gehienak jarduera honi loturik bizi ziren. Mutrikuko marinel anonimo ugari Euskal Kostaldeko beste arrantzale asko bezala, Ternua eta Islandiako itsaso urrunetara abiatu ziren baleen atzetik, bentura eta aberastasun bila, itzuliko ziren jakin gabe.

## **KOSME DAMIAN TXURRUKA** ILUSTRAZIOKO SEME ETA TRAFALGARREKO HEROIA (2)

Zientzia gizona eta Erregearen Armadako Brigadierra, marinel unibertsal honek espedizio ezberdinetan parte hartu zuen, ikerketa ezberdinak argitaratu zituen eta kartografo ezaguna izan zen. Bere balentria militarren artean Trafalgarreko Gudan (1805) izan zuen papera azpimarragarria da, non San Juan Nepomuceno ontziaren agintean hil zen.

## **ANTONIO DE GAZTAÑETA** ITSAS ERAIKUNTZAN AITZINDARI (3)

XVIII. mendean zehar Gaztañeta Almiranteak, pertsonaia polifazetikoa, itsasontzien eraikuntza arrazionalizatu zuen eta itsas eraikuntzaren oinarriak ezarri zituen, bere eragina Europa guztira zabaldu zelarik.

## **ISABEL DE LOBIANO** MAITASUNA GARAILE (4)

XVI. mende amaieran Mutrikuko Berriatua Dorretxe bikaina gizartea eta elizak ezarritako oinarriak aztoratu zituen maitasun istorio baten eszenatoki izan zen. Isabel, 13 urteko neskatxa, Gipuzkoako familia boteretsuenetako baten oinordeko bakarra, Euskal “Romeo eta Julieta” bertsio honen protagonista izan zen.



1



2

# OCHO SIGLOS DE HISTORIA Y SUS PROTAGONISTAS



3



4

## PESCADORES DE BALLENAS LOS PRIMEROS MARINOS DE MUTRIKU (1)

Hay documentos que demuestran que los "mutrikuarras" fueron hábiles pescadores de ballenas desde por lo menos el año 1200. La mayoría de hombres y mujeres vivían ligados a esta actividad. Anónimos marineros de Mutriku, junto con otros pescadores de la Costa Vasca, partieron hacia los mares lejanos de Terranova o Islandia tras los grandes cetáceos, buscando ventura y riquezas, sin la certeza de la vuelta.

## COSME DAMIÁN CHURRUCA HIJO DE LA ILUSTRACIÓN Y HÉROE DE TRAFALGAR (2)

Científico y Brigadier de la Real Armada, este marino universal participó en numerosas expediciones, publicó diferentes estudios y fue un cartógrafo muy reconocido. Entre sus gestas militares destaca su participación en la Batalla de Trafalgar (1805) donde murió al mando del San Juan Nepomuceno.

## ANTONIO DE GAZTAÑETA PRECURSOR EN LA CONSTRUCCIÓN NAVAL (3)

El Almirante Gaztañeta, polifacético personaje, racionalizó la fabricación de navíos y sentó las bases de la construcción naval a lo largo del siglo XVIII. Su influencia en la construcción naval de la época se trasladó a toda Europa.

## ISABEL DE LOBIANO AL FINAL, TRIUNFÓ EL AMOR (4)

La imponente Casa-Torre Berriatua de Mutriku fue el escenario de una historia de amor que convulsionó el orden social y eclesiástico de finales del siglo XVI. Isabel, una niña de 13 años, heredera única de una de las familias más importantes de Gipuzkoa fue la protagonista de este acontecimiento al más puro estilo "Romeo y Julieta".

# IGERILEKU NATURALAK

Mutrikuk Gipuzkoan bakarra den gune bat eskaintzen du: bi igerileku natural (marea igerilekuak), portuko hondartzaren ondoan kokatuak.

Bainurako eta aisialdirako gune honek xarma berezia du, familientzat aproposa da eta igeriketa atsegin dutenentzat, berriz, paradisua.

# PISCINAS NATURALES

Mutriku ofrece un espacio único en toda Gipuzkoa, con dos piscinas naturales (piscinas de mareas), ubicadas junto a la playa del puerto.

Zona de baño y ocio con un encanto muy especial, ideal para familias y un paraíso para los que disfrutan de la natación.





# GOZATZEKO HONDARTZAK

Mutrikuko itsatsertzak 4 km-ko luzera du, edertasun basatikoa. Hainbat hondartza ditu, guztiak flysch-aren itsaslabarrek eta arrokek ematen dieten izaera bereziak markatuak. Nabarmentzekoak, **Saturrarango hondartza**, Gipuzkoako kostaldeko ederrenetarikoa, **"Zazpi Hondartza"**k izeneko gunea, harrizko kala segida malkartsu eta basatiek osatua edo **Mutrikuko hondartza**, urbanoagoa, portutik eta igerileku naturaletatik gertu. Esperientziadun surflarientzat, berriz, **Alkoleako kala** ikusgarria da.

# PLAYAS PARA DISFRUTAR

El litoral costero de Mutriku, con una extensión de 4 kms, es de una belleza salvaje. Cuenta con varias playas marcadas por el carácter que les otorgan las rocas y acantilados del flysch. A destacar la **playa de Saturrarán**, una de las playas mas hermosas de la costa guipuzcoana, la zona de las **"Siete Playas"**, sucesión de calas agreste y salvaje, o la **playa de Mutriku**, más urbana, situada cerca del puerto y de las piscinas naturales. Para los surfistas experimentados, la **cala de Alkolea** es un enclave espectacular.





# OLATZ BAILARA

GEOPARKEAREN BIHOTZ KARSTIKOA

Olatz, leku xarmangarria izan arren, Gipuzkoako bailara ezezagunetarikoa da. Kareharriaren **higadurak bailara itxi bat sortu du**, arrokazko piramide erraldoiez inguratua eta dolina eta kobazuloz betea zeintzuek urak lur azpiko mundura garraiatzen dituzten. Kondairen lurra da hau, sorginen egoitza. Ezagutu ezazu bailara bertako biztanleen eskutik "**Karsteko Zaporeak**" bisita gidatuaren bidez (Erreserbak: www.geoparkea.eus), edo zure kabuz **PR-Gi 47 Geoibilbidea** jarraituz.

# ARNO MENDIGUNEA

NATURA 2000 SAREKO *KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUA*

Arno mendigunea balio eta paisaia kalitate handiko gunea da eta iberiar penintsulako **kantauriar artadi handienetarikoa** mantentzen du, benetako altxor naturala delarik. "**Mutrikuko Bira. PR-Gi 22**" ibilbidearen zati handi bat bertatik igarotzen da.

*(Ibilbideak: **www.mutriku.eus**)*



# VALLE DE OLATZ

## EL CORAZÓN KÁRSTICO DEL GEOPARQUE

Olatz, a pesar de su encanto, es uno de los valles más desconocidos de Gipuzkoa. La **erosión de la roca caliza ha dado lugar a un valle cerrado** rodeado de grandes pirámides de roca y horadado por dolinas y cuevas que conducen el agua al mundo subterráneo. Es la tierra de las leyendas, la morada de las *sorgiñas* (brujas). Conoce de mano de los propios habitantes del valle este precioso enclave en la visita guiada y degustación "**Los sabores del Karst**" (Reserva: www.geoparkea.eus), o por tu cuenta siguiendo la **PR-Gi 47 Georuta** de Olatz.

# MACIZO DE ARNO

## *ZONA DE ESPECIAL CONSERVACIÓN* INCLUIDA EN LA RED NATURA 2000

Zona de gran valor y calidad paisajística, el macizo de Arno constituye **una de las mayores masas forestales de encinar cantábrico** en el norte de la península Ibérica, por lo que representa un verdadero tesoro natural. Parte del trazado de la "**La Vuelta a Mutriku-PR-Gi 22**" transcurre por este bello entorno.

*(Rutas: **www.mutriku.eus**)*





# 100% BASQUE

*Mutriku herri euskalduna da, bere hizkuntzaz eta tradizioez harro dagoen jendeak osatua. Mutrikuko kirol, jai eta gastronomia euskal kulturak errotuak dira.*

# 100% BASQUE

*Mutriku es una localidad 100% vasca, con gente orgullosa de su lengua y tradiciones. Los deportes, fiestas y gastronomía de Mutriku están fuertemente enraizadas en la cultura vasca.*

## KIROLAK

## DEPORTES

### HERRI KIROLAK

"Aritza" harrijasotzaile famatua Mutrikuko Ziñua baserrikoa zen. Gaur egun bi mutrikuar gazte aizkolari entzutetsuak dira eta herrian sokatira taldea ere badago. *Nork eman gehiago!*

### DEPORTE RURAL VASCO

El famoso "harrijasotzaile" (levantador de piedra) "Aritza" era del caserio Ziñua de Mutriku. Hoy día, dos jóvenes mutrikuarras son grandes "aizkolari"s (cortador de troncos) y hay una equipo de "sokatira" (juego de la soga). *¡Quién da más!*

### KANTAURIKO OLATUETAN ARRAUNEAN

Euskal portuetako berezko kirola da arrauna. Mutrikuk badu bere arraun taldea eta udan ospatzen den Traineruen Ligako estropadetako bat Mutrikun jokatzen da.

### REMANDO EN LAS OLAS DEL CANTÁBRICO

El remo es el deporte tradicional de los puertos vascos por antonomasia. Mutriku acoge un club de remo y una de las regatas de la Liga de Traineras que se celebra cada verano.

### ZESTA PUNTA

Euskal pilotaren modalitate hau, zumezko saski batekin jolasten da. Mutrikun oso errotuta dagoen kirola da eta ohikoa da frontoian entrenamenduak edo lehiaketak ikustea.

### CESTA PUNTA

Modalidad de juego de pelota vasca que se practica con una cesta de mimbre. Sigue siendo un deporte muy arraigado en Mutriku, siendo habitual que el frontón local acoja entrenamientos o competiciones.









# **JAIAK** OHITURA ETA PARTE HARTZEA

**BERDEL EGUNA** *(martxo bukaera edo apirilaren hasieran)*
90. hamarkadatik aurrera, urtero, Mutrikuko herriak dena ematen du jai hau antolatzeko, berdelaren kontsumoa sustatzeko helburuarekin. Garai batean estimu gutxiko arraina, gaur egunean gero eta preziatuagoa da eta gure arrantzaleentzat arrantzaldi garrantzitsuenetakoa da.

**MALEN JAIXAK** *(uztailak 21-25)*
Uztailaren 21etik 25era ospatzen dira herriko zaindariaren jaiak. Sokamuturra, danborrada, erraldoiak eta buruhandiak beste hainbat kultur ekintzarekin nahasten dira.

**GALBAIXUAK** *(irailak14-16)*
Galbaixuak Mutrikuko jairik herrikoienak dira. Irailak 14tik 16ra ospatzen dira eta baserri eta itsas munduak elkartzen ditu.

# **FIESTAS** TRADICIÓN Y PARTICIPACIÓN

**DÍA DEL VERDEL** *(finales de marzo o principios de abril)*
Desde mediados de los 90, cada año, el pueblo de Mutriku se vuelca para organizar esta fiesta que promociona el consumo del verdel, antaño poco apreciado pero que actualmente supone una de las pesquerías más importantes para nuestros "arrantzales" (pescadores).

**MAGDALENAS** *(21-25 de julio)*
Las fiestas de la Magdalena, son las fiestas patronales de Mutriku que se celebran del 21 al 25 de julio. La tamborrada, la "sokamuturra", los gigantes y cabezudos se suman a otros muchos actos culturales.

**CALVARIOS** *(14-16 de septiembre)*
Las Fiestas del Calvario son las fiestas más populares de Mutriku. Se celebran del 14 al 16 de septiembre y unen el ámbito rural y la comunidad pesquera.

# GASTRONOMIA ARTISAU KONTSERBAK, ARRAIN FRESKOA ETA KALITATEZKO PRODUKTUAK

# GASTRONOMÍA CONSERVAS ARTESANALES, PESCADO FRESCO Y PRODUCTOS DE CALIDAD

Mutrikun garrantzitsuena produktua da. Bai jatetxeek eskeintzen duten produktuetan, bai zuzenean ekoizleei edota hirigune historikoko establezimenduetan lortu ditzakezun produktu guztietan.

## BERTAKO PRODUKTUA MIMATZEN DUTEN JATETXEAK

Mutrikuko sukaldaritza finaren sekretua mimoa, iaiotasuna eta, batez ere, lehengaien kalitatea da.

## ARTISAU PRODUKTUAK, HISTORIA ETA LABELDUNAK

Mutrikuko arrain kontserbak italiar tradiziokoak dira, bertatik etorri baitziren lehenengo kontserberak eraiki zituztenak. Gure kostaldeko arrainaren kalitate bikaina bilatzen zuten.

Baserrietan ere artisau produktuak egiten dira, hala nola, artzai gazta, bertako produktuekin egindako mermelada goxoak eta guztiekin bat datorren edaria: txakolina.







En Mutriku prima el producto. Tanto en la variada oferta que encontrarás en sus restaurantes, como en el abanico de productos de calidad que podrás adquirir directamente a los productores o en las tiendas del Casco Histórico.

## RESTAURANTES QUE MIMAN COMO NADIE NUESTRO PRODUCTO

El secreto de la exquisita cocina de Mutriku es el mimo, el saber hacer y sobre todo, la calidad de la materia prima.

## PRODUCTOS ARTESANALES, CON HISTORIA Y LABEL

Las conserveras de pescado de Mutriku son de tradición italiana, fundadas por emigrantes italianos atraidos por la excelente calidad del pescado de nuestra costa.

También en los caseríos se elaboran productos artesanales como “artzai gazta” (queso de pastor), exquisitas mermeladas km 0, o el vino que mejor combina con todos ellos: el txakolí.







# ALOJAMENDUA
## ETORRI ETA BERTAN GELDITU!

Mutrikuk leku ederretan kokatutako alojamenduen eskaintza aparta dauka zuretzat. Eskaintzen dituzten ikuspegi eta zerbitzuengatik harrituko zaituzten hotelak, nekazalturismoak eta kanpinak.

*(Alojamendu, jatetxe eta gastronomiari buruzko informazio gehiago* ***www.mutriku.eus****)*

# ALOJAMIENTO
## ¡VEN PARA QUEDARTE!

Mutriku te ofrece una variada oferta de alojamientos, ubicados en enclaves espectaculares para desconectar y disfrutar del entorno. Hoteles, alojamientos rurales y campings que te sorprenderán por sus exclusivas vistas y servicios.

*(Consulta la oferta de alojamientos, restaurantes y gastronomía en* ***www.mutriku.eus****)*

# UR JARDUERAK

## URPEKARITZA ETA SNORKLE-A

Mutrikura bazatoz, ez ahaztu urpekaritzako betaurrekoak! Portu hau Kantauriko sakonerak ezagutzeko abiapuntu ezin hobea da. Murgilaldiak eta ikastaroak urte osoan zehar egiten dira.

## SURF

**Alkoleako Kalan** ezkerreko olatu indartsuak sortzen dira, kalitateko "*break point*" bat, edertasun paregabeko gune batean kokatua. Abenturazale eta surflari esperientziadunentzat soilik.

## STAND UP PADDLE ETA KAYAK

Mutrikuko portuan kayak-ak, *paddle* eta *stand up paddle* taulak alokatu ditzakezu, ikastaroetan parte hartu edo inguruan ibilaldi txikiak egiteko.

# NATUR JARDUERAK

## ZALDIZKO TXANGOAK

Izan kostaldetik izan menditik, bide zahar tradizionalak, herriko ibilbide eta bidezidorrak zaldi gainean egiteko aukera paregabea.Irteerak eta ikastaroak urte osoan zehar egin daitezke.

## ESKALADA ETA SLACK LINE

Saturrarango hondartzan eta Olatzko bailaran IV/7B-A2 bitarteko zailtasuna duten 37 eskalada bide aurkitu ditzakezu guztira. Bestalde, Mutrikuko portuko hondartza ondoan *slackline* praktikatzeko gunea aurkituko duzu.









# ACTIVIDADES EN EL AGUA

## BUCEO Y SNORKEL

Si vienes a Mutriku, ¡no olvides las gafas de buceo! El puerto es el punto de inicio de esta experiencia para conocer las profundidades del Cantábrico. Las inmersiones y cursos se realizan durante todo el año.

## SURF

**La cala de Alkolea** ofrece una intensa ola izquierda, un "*break point*" de calidad enclavado en una zona de gran belleza. ¡Solo para aventureros y surfistas experimentados!

## STAND UP PADDLE Y KAYAK

En el puerto de Mutriku se pueden alquilar kayaks, tablas de *paddle* o de *stand up paddle* y participar en cursos o hacer pequeños recorridos por la zona.

# ACTIVIDADES EN LA NATURALEZA

## PASEOS A CABALLO

Recorre a lomos de un caballo los viejos caminos tradicionales, sendas y rutas locales, tanto en el monte como en la costa. Hay salidas y cursillos durante todo el año.

## ESCALADA Y SLACK LINE

En la playa de Saturrarán y en Olatz encontrarás un total de 37 vías de escalada, con dificultades entre IV/7b-A2. Por otro lado, cerca de la playa del puerto, encontrarás una zona para practicar *slackline*.

# **IBILBIDEAK** ITSASOA ETA MENDIAZ GOZATZEKO

## MUTRIKUKO BIRA (PR-Gi 22)

19 km-ko ibilbide hau Mutriku udalerriko mugetatik zehar igarotzen da, itsasoa eta Arnoko Kontserbazio Bereziko Eremuaren aberastasun naturala uztartzen dituelarik.

## OLATZEKO GEOIBILBIDEA (PR-GI 47)

Olatz bailara harrigarriko paisaia eta geologia ezagutuaz, familiarekin egiteko gomendagarria den 6,5 km-ko ibilbide laburra da. Baserriak, karobiak, kobazuloak eta askoz gehiago, ibilaldiaz gozatzeko.

## TALAIA IBILBIDEA (GR-121)

Ibilbide honek Gipuzkoako kostalde osoa zeharkatzen du: Hondarribian hasi, Mutrikutik pasa eta Saturraran hondartzan bukatzen da. Balea arrantzaleen antzinako talaietatik igarotzen da, eta itsaso gainetik edertasun handiko guneetatik pasatzen da.

## DONE JAKUE BIDEA

Iparreko bidearen laugarren etapa, zailenetarikoa, Deban hasi eta Mutrikutik igaro ondoren Markina-Xemeinen amaitzen da. Jatorrizko bidea Astigarribiatik pasatzen bazen ere, gaur egun Laranga auzotik igarotzen dena da gehien erabiltzen dena (Mutrikuko ondarea ezagutu ahal izateko, herrian geldialdia egitea gomendatzen da).





# SENDEROS PARA DISFRUTAR DEL MAR Y LA MONTAÑA

## LA VUELTA A MUTRIKU (PR-GI 22)

Sendero de 19 km que pasa por los límites de Mutriku combinando preciosas vistas al mar con toda la riqueza natural y paisajística del ZEC (Zona de Especial Conservación) de Arno.

## GEORUTA DE OLATZ (PR-GI 47)

Corto recorrido de 6,5 km, ideal para hacer en familia y descubrir el paisaje y la geología del sorprendente valle de Olatz. Caseríos, hornos caleros, cuevas y mucho más para disfrutar de la caminata.

## RUTA DE LA ATALAYA (GR-121)

Este sendero discurre por toda la costa guipuzcoana: parte desde Hondarribia, pasa por Mutriku y finaliza en la playa de Saturrarán. Atraviesa las antiguas atalayas de vigilancia de los balleneros y recorre tramos de enorme belleza sobre el mar.

## CAMINO DE SANTIAGO

La cuarta etapa del Camino del Norte, una de las más difíciles, comienza en Deba y atraviesa las tierras de Mutriku para finalizar en Markina-Xemein. Aunque el camino histórico sea el que pasa por Astigarribia, actualmente se utiliza la variante del barrio Laranga, que discurre por hermosas zonas con vistas al mar (se recomienda hacer una parada en Mutriku para conocer su rico patrimonio).

# **BISITA GIDATUAK** NAHIERAN

Mutrikuko eraikinetan gordetzen diren historia eta istorioak, itsaslabarretako sekretuak, eta bertako bizimoduaren berezitasunak ezagutzeko bisita gidatu batetan parte hartzea gomendatzen dizuegu.

Taldeei zein partikularrei zuzenduta, eskaintza zabala da eta aukera ugari dago urte osoan zehar Mutrikuko Hirigune Historikoa, “Flysch”-a eta “Karst”-a ezagutu ahal izateko. Nautilus, Mutrikuko Ikasgune Geologikoak eta Olatu Plantak ere bisita bat merezi dute.

Amaitzeko, Mutrikun zure egonaldiari etekin handiena ateratzeko gomendioa: gida lokal bat kontratatu, benetako Euskadi bizi eta dastatzeko esperientzia paregabeak proposatuko baitizkizu.

*(Informazio gehiago eta erreserbak: **www.geoparkea.eus**)*








# **VISITAS GUIADAS** A LA CARTA

Para conocer Mutriku, la historia y los relatos detrás de las fachadas de sus palacios, los secretos que esconden sus acantilados y la singularidad de su modo de vida, os recomendamos participar en una visita guiada.

La oferta para conocer el Casco Histórico, el “Flysch” y el “Karst”, es grande y diversa a lo largo de todo el año y disponible tanto para grupos como para particulares. El Nautilus, Centro de Interpretación Geológica de Mutriku, y la Planta de Olas también merecen una visita.

Para finalizar, un consejo para sacar el máximo partido a tu estancia en Mutriku: Contrata una guía local, que te propondrá experiencias únicas para vivir y saborear la verdadera Euskadi.

*(Más información y reservas en: **www.geoparkea.eus**)*







# ARRIETAKUA JAUREGIA

ITSAS-ONDAREAREN ETA ETXEBITZA HISTORIKOEN ZALEENTZAKO ESPERIENTZIA

Antonio de Gaztañeta Almiranteak eraikitako eta Kosme Damian Txurruka Brigadierraren jaiotetxea izandako Arrietakua Jauregian, egun Mutrikuko Kondearen etxea, bisita gidatua egiteko aukera izango duzu urte osoan zehar. Mutrikun bakarrik gozatu dezakezun esperientzia bikaina!

Mutrikuko Hirigune Historikoaren bihotzean dagoen XVIII. mendeko jauregi eder honetan barrena denboran atzera egin eta bertan bizi izan ziren itsasgizon, nabigatzaile eta izen handiko beste hainbat pertsonaiaren historia ezagutuko duzu.

Jauregi hau, herri honek itsasoarekin duen erlazioaren adierazle izateaz gain Euskal Kostaldeko itsas-ondarearen altxorretako bat da.

*(Informazio gehiago: **www.mutriku.eus** eta erreserbak on-line: **www.geoparkea.eus**)*



# PALACIO ARRIETAKUA

## EXPERIENCIA PARA AMANTES DEL PATRIMONIO MARÍTIMO Y LAS CASAS HISTÓRICAS

El Palacio Arrietakua, construido por el Almirante Antonio de Gaztañeta, es la casa natal del Brigadier Cosme Damián Churruca. Actualmente vivienda del Conde de Mutriku, se pueden realizar visitas guiadas a lo largo de todo el año. ¡Experiencia única y singular de la que sólo podrás disfrutar en Mutriku!

Recorriendo este hermoso palacio de S. XVIII ubicado en el corazón del Casco Histórico de Mutriku, viajaremos atrás en el tiempo, conociendo la historia y hazañas de los marinos, navegantes y otros grandes personajes que lo habitaron.

Este palacio es buena muestra de la relación que ha tenido este pueblo con el mar y es actualmente una de las joyas del patrimonio marítimo de la Costa Vasca.

*(Más información: **www.mutriku.eus** y reservas on-line: **www.geoparkea.eus**)*








MUTRIKUKO TURISMO BULEGOA / OFICINA DE TURISMO DE MUTRIKU

Plaza Txurruka z/g. 20830 MUTRIKU · Tel. 943 60 33 78 · turismo@mutriku.net

***www.mutriku.eus***

EUSKAL KOSTALDEKO UNESCO GEOPARKEA / GEOPARQUE UNESCO DE LA COSTA VASCA

***www.geoparkea.eus***

DEBABARRENA TURISMO

***www.debabarrenaturismo.com***


**IZAN ZAITEZ TURISTA ARDURATSUA**

Ez utzi arrastorik!

Gozatu zure esperientzia ingurua zainduta.

*Ikasi zure bidaian!*

**ANTE TODO, SÉ UN TURISTA RESPONSABLE**

¡No dejes rastro!

Disfruta de tu experiencia respetando el entorno y sin alterarlo.

*¡Aprende de tu viaje!*

Euskal Kostaldeko **UNESCO**ren munduko **GEOPARKEA** **GEOPARQUE** mundial **UNESCO** de la Costa Vasca